



Santiago bidez

Gogoetazko begirada bat

Erakusketa

ANTOLAKETA

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

KOMISARIOA

Fermín Miranda García

ZUZENDARITZA TEKNIKOA ETA MUNTAKETA

Muraria S.L.

KOORDINAZIOA

Félix Segura Urra

DISEINUA

José Miguel Parra Torres

TESTUEN ITZULPENEA

Andrea Ganchegui Sorabilla

EKOIZPEN GRAFIKOA

Graficas Sabaté
Papelería Técnica Rubio

ZAHARBERRITZEA

Barbáchano y Beny S.A.

DIGITALIZAZIOA

El Corte Inglés Informática S.A.

LAGUNTZAILEAK

Iruñeko Katedraleko Artxiboa
Orreagako Kolegiatako Artxiboa
Lizarrako Udala
Nafarroako Liburutegia

Katalogoa

EDIZIOA

Gobierno de Navarra.
Departamento de Cultura y Deporte

TESTUAK

Fermín Miranda García

KOORDINAZIOA

Muraria S.L.

DISEINU GRAFIKOA

José Miguel Parra Torres

TESTUEN ITZULPENEA

Andrea Ganchegui Sorabilla

ARGAZKIAK

Archivo Real y General de Navarra
José Luis Larrión

INPRIMATZEA

XXXXX

© Testu bakoitzaren egilea

© Egileak eta gordailuzainak, irudiengatik

L.G./D.L. - NA 919-2021

ISBN: 978-84-235-3587-3

SUSTAPENA ETA BANAKETA

Nafarroako Gobernuaren Argitalpenen Funtza
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 Iruña
Tel.: 848 427 121
fondo.publicaciones@navarra.es
<https://publicaciones.navarra.es>

Santiago bidez

Gogoetazko begirada bat



Jacobeo 21·22

AGN

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Saria
santuekin
edo
zigorra?
demonioekin

Artea
errromesei **esker**
loratzen da
edo
errromesaldiko
santutegiek

Bide
guztiek
Santiagora
daramate?

Zubiak
errromesentzat

eraikitzen dira
ala errromesek
zeharkatzen
dituzten
zubiak
eraikitzen dira

errromesen zerbitzura
jartzen dituzte
teknika berriak

Zergatik eraikitzen dira
ospitalerik
handienak
errromes gutxiago
daudenean

Bideak
egiten du bidegilea edo
bidegileak
egiten du bidea

Debozioa
edo
betebeharra?

Santutegiak
bidearen alboan
edo
bidean
barnako?
santutegiak

Errromesaldiaren
negozioaren
atzetik doazen
emigranteak
edo emigranteek
muntatutako feria, merkatu
eta saltokiak **bidaiatzeko**
aprobetxatzen
dituzten
errromesak

Bideak
egiten ditu
santuak
edo santuek
egiten dituzte
bideak

Nor da
ostatu
eman behar
zaion
errromesa?

Santiago
apostolua
Santiagon
lurperatuta?
al dago

Hiribilduak eta hiriak
errromesen joan-etorriaren
ondorioz **suspertzen**
dira edo
errromesaldia
hiribildu eta hirien
bilbeari esker?
garatzen da

Bideak
errromesen joan-etorriak
hobetzeko
aldatzen dira ala
errromesek

haien ibilbideak
aldatzen dituzte
bideak ere aldatu
egiten direlako



	Aurkezpena	7
	Oinez urratzen da Bidea	10
	Bestelako erromesaldiak, bestelako santutegiak	13
	Egun Santiagora erromes joatea	15
	Zubiri, zubiri...	24
	Errege-erregina pontifizeak	27
	Zubia itsasontzia denean	29
	Errege-erreginak eta santu ingeniari bidezainak	31
	Jendeztatu, fabrikatu, salerosi...	32
	Frankoak eta burgesak	35
	Zegarik gabeko erromesak	37
	Burguak eta burgeteak	39
	Erromesentzako artea?	46
	Esteban, maisua, bizitza oso bat "erromesaldian"	48
	Iparraldeko sagetatik gesta-kantetara. Artea kondairan	51
	Erromesari ostatu ematea	52
	Abegikortasuna eta propaganda politikoa	55
	Bideko behartsuak	57
	Ibilbide xakobeoetako ospitale handiak	59
	Penitentzia egin eta barkamena eman	70
	Santiagora erromes joateak errazegia zirudienean	73
	Joan daitezela beste batzuk erromes	75
	Beste santu batzuk Bidea(n)	80
	Santuak eta kondairak	83
	Erromesak eta erromesaldiak	85
	Nor dago (edo ez) apostoluaren hilobian Santiagon	90
	Prisziliano "aldaera"	93
	Beste hilobi ezagun batzuk	95
	Siglak	98

Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Kiroleko Departamentuak Compostelako Urte Santuaren ospakizuna baliatuko du 2021ean eta 2022an Nafarroa osoan barna egingo diren hainbat jarduera sustatzeko. Lehenengoa Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren eskutik dator eta, jubileu xakobeoak eskaintzen duen abagune paregabeari esker, iraganera so egiten du Donejakue Bidearen historiari buruzko gogoeta egiteko. Horretarako, erakundeak zaintzen dituen idatzizko testigantzak baliatuko ditu.

Azken hamarkadetan, Donejakue Bidea ernaberritu da hamaika ekimen dibulгатibo eta zientifikoren loraldia-rekin eta, era horretan, bidea gure ondare kulturalaren adierazpen kultural ezinbesteko eta ezagunena bilakatu da. Are gehiago, gaur egun, gure lurraldeko toki historiko, monumentu, ondasun higigarri, komunikazio-bide eta tradizio mordo baten idiosinkrasia deskribatzeko pisuzko argumentu gisa erabiltzen dira erro xakobeoak.

Donejakue Bideak lurralde zahar honen ondare historiko eta kulturala blaitzen duen testuinguru horretan, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak bide xakobeoaren historiarekin zerikusia duten hainbat alderditan barnako ibilbidea proposatzen du, erromesaldien irakurketa unibertsalaren bidez. Ikuspuntu interesgarri hori emateko, artxiboko dokumentuetatik abiatu da, gure ondarean hain ezagunak ez diren testigantzak izan arren, Donejakue Bidea zehaztasun handiagoz eta testuinguru historikoan kokatuz ulertzen laguntzen baitute.

“Santiagora bidez” izenburuarekin erakusketaren komisario Fermín Miranda Garciak gaiaren jatorrirako bidaia proposatzen du eta alderdirik nabarmenenetan murgiltzen gaitu, izan ere, haiei buruz askoz idatzi den arren, gaur egun oraindik ere argitzeke dagoen kontua da: bideak, zubiak, hiriak, artea, bertaratzea, penitentzia, debozioak eta hilobia. Egilearen testuetan begirada kritikoa da nagusi; hala, galderak egin, gogoeta bultzatu eta publikoarekin etengabeko elkarrizketa sortzen du Donejakue Bidearekin lotuta finkatuta dauden ideiak eta topiko immanenteak zalantzan jartzearaino. Alabaina, beti errespetu osoa agertuz eta historialari onak ezaugarritzen dituen zehaztasunarekin.

Muntatzeak herritar askok erakusketa zoragarri honetaz gozatzeko aukera izan dezaten ahalbidetzen du, izan ere, panelek Nafarroako hainbat udaletako kultura-etxeak bisitatuko dituzte, bai Donejakue Bidearen ibilbidean kokatuta daudenetakoak, bai haien programazioan sartu nahi izan duten beste batzuetakoak ere. Aukera bat lurraldeak “Respira Cultura – Kultura Arnastu” kanpainaren goiburua bere egin dezan.

Eta, orain, erakusketaren ekarpen nagusiak jasotzen dituen katalogo honi esker, herritar guztiek aukera errepi-kaezin honekin disfrutatzeko aukera dute, baita Donejakue Bidea, gure historia iraganetik orainaldira zeharkatzen duen erromesbide handia, hobe ezagutzeko aukera ere.

Rebeca Esnaola Bermejo

Kultura eta Kiroleko kontseilaria
Nafarroako Gobernua






Erakusketa
**"Santiagora bidez.
 Gogoetazko begirada bat"**

Iruñea, Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
 "Sancho el Sabio" erakusketa aretoa
 (2021eko martxoa-ekaina)



Oinez urratzen da Bidea



Bideak egiten du bidegilea edo bidegileak egiten du bidea?

Bide guztiek Santiagora daramate?

*Lau bidek eramaten dute Santiago aldera eta Garesen,
Hispaniako lurretan, bat egiten dute.*

[Codex Calixtinus, Libro V -Guía del peregrino-]

Ustez Aimerico Picaudek 1140aren inguruan idatzitako "Guía del Peregrino" (Erromesaren Gida) lanean egiten den baieztapen irmoa ia dogmatikoa izan da azken mendean. Bereziki L. Vázquez de Parga, J.M. Lacarra eta J. Uriak 1948an idatzi zuten *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela* (Santiago de Compostelarako erromesaldiak) liburuan haren ibilbidea jarraitu zutene-tik Donejakuerako ibilbideak deskribatzean. Horrela bada, bide handi horiek ezinbestean egin beharreko ibilbide sakratuak zirenaren ideia errotu da iru-diteria kolektiboan. Egun "Bidea egitean" bidaia ia helmuga bezain garrantzi-tsua dela ulertzen dugu; alabaina, ikuspuntu horrek eta iraganekoak ez dute zertan berdinak izan. Bide orok balio zuen, nahiz eta, gaur egun gertatzen den moduan, adarrek bat egiteko joera izan eta bigarren mailakoak baino nagusiak nahiago izaten ziren. Aipatzen diren aldaera ugariek adierazten dutenez, errealitatean "Donejakue Bidea" Santiagora zeraman bide-sarea zen, eta zorionekoek egiten zuten Obradoiro enparantzako bidegurutze sinpletik bidaiari eskandinaviarrek deskriba zezaketen bide eta itsasoetan barnako ibilbide konplikatuetaraino zihoazen aldaera guztiak barne hartzen zituen. Ez du ezerk ziurtatzen *Historia Silense* lanaren arabera 1063an greziar bidaiariari zaldian agertu zitzaion apostoluak horietako bide bat erabili zuela.



A



B



A. V. Galbete, Erromesen Monumentua Erreniegan (Nafarroa)

B. Erosten Harresia (Jerusalem)

C. Mekarako erromesen kanpamendua Damaskon (BNF, Estampes El 13 (723), año 1920)

Bestelako erromesaldiak, bestelako santutegiak

Santiagorako eta beste santutegi kristau batzuetarako erromesaldi tradizionalak, hastapenetan eta historiaren parterik handienera, beste erlijio eta korrante espiritual askoren antzeko bidaia-eredua izan zuen, non toki jakin batzuk bisitatzea erreferente berezia den. Musulmanek, juduek, budistek, sikhek edo hinduek ere, adibide batzuk aipatzearen, badituzte erreferentzia espiritualeko puntuak, eta haietan kontzentratzen dira askotariko jaialdiak ospatzeko. Kasu horietan ere badira tenplu edo espazio berezien inguruan egiten diren ibilaldi tradizionalak, baina markatutako ibilbide horiek ez dute ia inoiz –edo inoiz ere ez– kasuan kasuko santutegiaren kanpoaldea gainditzen. Kasurik ezagunenean, alegia, Islamaren Bosgarren Oinarrian ezarritako eskakizunak agintzen duen Hach-a egitean (*Haġġ*) –Mekako Kaaba (*al-ka'bah*, “Kuboa”) santutegirako erromesaldia–, bisita ibilbide eta ospakizun oso zehatzetan antolatzen da, eta, sarritan, beste batekin osatzen, Medinan,

300 kilometrora dagoen Muhammaden (Mahoma) hilobira-koarekin, baina berdina da zein garraibide erabiltzen den lehenera edo bigarreneira iristeko (hegazkina edo abiadura handiko trena barne). Beste hainbeste esan daiteke juduek Erosten Harresira egiten duten erromesaldi tradizionalaz. Erromatarrek 70. urtean suntsitu zuten Jerusalemgo Bigarren Tenplutik ikus daitezkeen azken aztarna horietarako erromesaldia bisitekin osatu ohi da, Patriarken Hilobirakoarekin esaterako (Hebronen, Palestinaren agintaritzapean dagoen lurraldean). Kasu honetan, gainera, oroitarazi beharra dago Jerusalem musulmanentzako erromesaldigunea ere badela, bai Meskiten Zabalgunek Arrokaren Santutegia, bai aipatutako Patriarken Hilobia. Allahabaden egiten den Kumbh Mela jaialdi hinduak milioika hindu biltzen ditu urtero. Ganges ibaian purifikatzen dira, eta ibaiko bainu hori da benetan garrantzitsua, ez nola bertaratzen diren.



Egun Santiagora erromes joatea

Mendeetan Santiagorako erromesaldiak Apostolua-
ren Hilobia bisitatzeko helburu argia bazuen ere,
distantziak, ibilbideak eta oztopoak gorabehera,
XX. mendearen bigarren erdian *Iter Sancti
Iacobi* berreskuratzeak haraino doan ibilbidea
egitea eskatzen du. Nolabait, helmugara
heltzea bezain garrantzitsuak dira ahalegina,
sakrifizioa, penitentzia eta, kontrajartzen
dela dirudien arren, bidaiaz gozatzea.
Bestelako baldintzatzaile eta arrazoi
pertsonal batzuetatik haratago, ibilbide
jakin bat zorrotz definitzeak berekin
dakar, batetik, bidaia eta helmuga
integratzea, eta, bestetik, biak
betetzeko baldintzak ezartzea. Izan
ere, askoz lehenago eta ziurrenik

geroago apostolua bisitatu duten erromes askorentzat
garrantzitsuena "Bidea Egitea" da, jarraian edo etapaka,
bakarka edo lagunduta, oinez, bizikletaz edo zaldiz, behin
edo hamaika aldiz, fededun kristaua eta Jakueren fede-
duna izanik, edo beste edozein erlijio zein pentsamol-
deren korronteri atxikia, eta, zergatik ez, sinesgabetua
eta arrazoi erlijiosorik gabea, baina behar espiritual
edo pertsonalez betea agian, zubiren baten bestaldean,
bihurgune batean edo aterpetxe bateko ohean aseko
direnaren esperantzaduna. Hirugarren milurtekoaren
mundu globalizatuan, beharbada, erromesak Jakue,
Santiago, James, Jacob Giacomo, Jacques, Jacobo, Iacobe
, Yacub, Jaime, Diego edo Tiago errazago aurkituko ditu
Erroibarreko gainetan Obradoiro enparantzako zalapar-
tan baino.

Santiago de Compostelako katedrala.
Obradoiroko fatxada (XVIII. mendea)



Orreagako Santa Maria kolegiataren eta Baionako apezpiku eta kabildoaren arteko
prozesua Bortuez Bestaldeko (Nafarroa Beherea) hainbat elizen gaineko patronatuengatik.



Gartzia III.a Santxitz "Naiarakoa" erregeak erromesentzako ospitale bat eraiki zezan eskatzen dio Iratxeko Santa Mariako abadeari, eta Muetz eta Rujo arteko harizti bat ematen dio monasterioari hura sostengatzeko.



Antso IV.a Gartzetiz "Peñalengoa" erregeak Fortún apezpiku-abadeari eta Leireko San Salbatoreri Ibañetako San Salbatore eta Landazabalgo Santa Maria monasterioak ematen dizkie, zilarrezko mila sueldotan baloratutako bina zaldi eta mandoren truke.

AGN, CLERO, RONCESVALLES, 43,1



Ca. 1300

19

Nafar erromantzez idatzitako Cantar de Roncesvalles lanaren pasartea.
Karlomagno Errolanen hilotza topatzen du Orreagako gudua eta gero.

AGN, CODICES, E1.







DON PEDRO FRANCISCO SUAREZ DE GONGORA,
Luján, Silva, y los Ríos, Menendez de Avilés, Sandoval, y
Roxas; Marqués de Almodovar, inmediato Marqués de Onti-
veros, Conde de Canalejas, Adelantado Mayor de la Florida,
Castellano perpetuo de Avilés, y S. Juan de Nieva; Señor de
la Zarza, Torre del Cañaveral, de la Rambla, Santa Maria
de Trañerra, y de las Jurisdicciones, Villas, Lugares, y Pa-
tronatos correspondientes à las expresas Casas, y Estados,
&c. &c. Gran-Cruz dela Real distinguida Orden Española
de Carlos III. Gentil-Hombre de Camara de S. M. C. con
exercicio, y su Embaxador en esta Corte.

*POR quanto Josef Antonio Martinez, de
nación Español transita por esta Corte
à Galicia con destino ala Coruña.*

Por tanto pido à todos los Gobernadores de las Armas, Cabos, Ofi-
ciales Militares, y Ministros de Justicia por donde transitar, no le
pongan impedimento alguno, antes bien le den todo el favor que ne-
cesite, à cuyo fin lleva este Pasaporte firmado de mi mano, sellado
con el Sello de mis Armas, y retrechado del Secretario de S. M. y
de esta Embaxada. Lisboa *dos* de *Febrero* de mil seteci-
entos *setenta y cinco* -



Manuel de Alencar
J. C. Xavier de la Cruz abate
Sto

Valga por *quaxentadidos*.

Zubiri, zubiri...



Arga ibaiaren gaineko zubia Garesen (XI. mendea)

Zubiak erromesentzat

eraikitzen dira
ala erromesek
zeharkatzen
dituzten
zubiak
eraikitzen dira



Bideak
erromesen joan-etorriak
hobetzeko
aldatzen dira ala
erromesek

haien ibilbideak
aldatzen dituzte
bideak ere aldatu
egiten direlako



XI. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik europar mendebalde osoak jasaten duen garapen urbano eta ekonomikoak, aldi berean, berebiziko ahalegina eskatu zuen antzinako bide erromatarrek egokitu eta konpontzeko, zubiak sendotu eta eraikitzeko, tunelak eta mendiko portuak irekitzeko eta ibilbide tradizionalak premia berrietara egokitzeko. Errege-erregina, noble, apezpiku zein hiriek, koordinatuta edo elkarren aurka, pertsonen eta salgaien trafikoa ahalbidetzeko saiakera handia egin zuten. Emaitzak mugatuak izan ziren arren, komunikazioen aurrerapen orokortua ahalbidetu zuten. Jakina, zerga mordo batek obra oso garesti horiek eragindako gastuei aurre egiten lagundu zuen.

Ordainketatik salbuetsita zeudenen artean hainbat santutegitara eta, noski, Compostelara zihoazen erromesak nabarmentzen dira. Arreta berezi horrek erromesaldiarentzat berariaz eraikitako sare baten itxura sortu zuen, bigarren maila batean beste xede batzuetarako erabiltzen zena. Bideak desbideratu egin ziren penitentziagileei ibilia errazteko, zubiak eraiki ziren igarotzea ahalbidetzeko, hiribilduak eraikiko ziren haiei ostatu emateko. Baina xakobeoak pertsona eta produktuen mugimendu horren zati txiki bat baino ez ziren, eta, beraz, batzuen eta besteen arteko egiazko kausa-efektu harremana zein izan zen galdetu beharra diogu gure buruari.



Errege-erregina pontifizeak

Oviedoko Pelaioaren kronika

Este Alfonso [VI] fue padre y defensor de todas las iglesias de Hispania [...]. A los mercaderes y peregrinos que se movieran por el reino, nada les ocurría. En ningún momento de su vida dejó de hacer buenas obras, y mandó construir todos los puentes que hay desde Logroño hasta Santiago [de Compostela]

(trad. B. Sánchez Alonso, Madrid, 1924, p. 83-84)

Erregina Nagusia ("Maria") XVI. mendeko eskbu. batean.

Antonio Holandakoa, Portugalgo errege-erreginen genealogia

BL, Add. MS 12531, f. 5r)

Pontifex: zubigilea. Ingeniaritza-lanak, harrizkoak, ezagutza eta inbertsio handiak eskatzen zituztenak eta, jakina, apaizen bidez (pontifizeak) dibinitateari gomendatu beharra zirenak kontserbatuko zirela ziurtatzeko. Hala bada, zentzua du Erdi Aroko apaizek idatzitako kronikek jarduketa horiek haien gogoko errege-erreginekin lotzea, eta haien bertuteen artean Jainkoari, Elizari eta santuei laketa izatea egotea beti.

Mezu horrekin lotuta Garesko zubia (gaztelaniz Puente la Reina, hau da, Erreginarekin lotuta) Antso III.aren emazteari, Muniari/Nagusuari, egozteko egongo litzateke. Argi eta garbi erregearekin elkarlanean, zubiaren eraikuntza sustatuko zuen, kondairak dioenez, erromesari Arga zeharkatu zezaten laguntzeko,

senarrak apostoluaren hilobiranzko bide berri bat ireki baitzien. Zubiaren trazadura ez badator bat Muniaren datekin, zubiaren sustatzailea haren erraina, Estefania, izan liteke. Alabaina, J.M. Jimeno Juriok mitoa gezurtatu zuen eta ohartarazi zuen gaztelaniazko "*Reina*" horrek ibaiaren beste izararen (Runa) eratorpena dirudiela, besterik ez.

Era berean, Oviedoko Pelaio kronikari eta apezpikuak, beste autore batzuen moduan Alfontso VI.aren (1065-1109) figurarekin obsesionatuta, bere garaian zeuden "zubi guztien" eraikuntza egozten dio, Logroñetik Santiagoraino. Apostoluaren hiria helmuga gisa seinalatzen denez gero, eta lehentxeago aipatu zuenaren arabera bakeak eta oparotasunak merkatari eta erromesari erreinuan barna mugitzea ahalbidetzen ziela eta, errege pontifizearen obren konbertsioa erromesaldia garatzea xede zuen saiakera batean kokatzen da.



Erromesak ontzirutzen.

[BL, MS Royal 15 E 1 f. 404, ca 1445-1445].

Zubia itsasontzia denean

Oinez, zaldiz edo bizikletaz. Gaur egun erromesaldiaren bermatzaileen erabateko aintzatespena duten "Bidea egiteko" hiru moduak. Itsasontziak berak ere ez zuen, britainiar uharteetatik iritsitako penitentziagile askok (erromesaldiak, honek eta beste edozeinek, beti izan du osagai hori) erabiltzen duten tresna. Ur-masak zeharkatzeko beste modu bat zen, kasu honetan ez ibaietakoak, itsasoetakoak baizik, baina zubiek bezala, bai eraikuntza- bai nabigazio- teknikak eskatzen zituen, eta salgaien eta bidaiarien trafikoak eragindako premiek bakarrik abiarazi zituzten. Drakkar bikin goen oholztatik hasi eta korasta-lemara, astrolabiotik iparrorratzera edo bela karratutik latindarrera, Mediterraneoan eta Atlantikoan barna ontziteria eta merkataritza-ontziak hedatzeak bakarrik

ahalbidetu zuen Europa iparraldeko erromesek lehorreko ibilbideen ordeztasun zabalerako ibilbideak egitea. Ibilbide horiek, hain zuzen ere, Britainiako kostaldetik Galiziara joaten ziren eta edozein erromesaldi betikotzen zuen kabotaje tradizionala abandonatzen zuten. Flandriara edo Ingalaterrara Gaztelako artilea, garia eta ardoa garraiatzen zuten eta penintsulara oihaltze eta larruekin itzultzen ziren itsasontziek beren sotoetan erromesak eramaten zituzten, ordaindutako txartelaren arabera erostasunean, eta bidaia jarraitu aurretik A Coruña lehorreratzeko zituzten. Miniaturek bidaiariz betetako ontzi horiek irudikatu ohi dituzte, gaur egungo gurutzaontziak bailiran, eta ez ohiko nahasketa horretan, non, gerrarako igotako armadak salbu, bidaiariak beste merkantzia bat baino ez ziren. Baina ia beti bezala, irudi sinbolikoak dira, haiekin batera zihoazen testuetan elementu jakin batzuk nabarmentzeko xedea dutenak.



B



C



A

Errege-erreginak eta santu ingeniari bidezainak

A. - Zamar-
tzeko Santa
Maria baseliza
Arabako "bidean"

B - Antso Na-
gusiaren ustezko
hilobiaren lauda
(Leóngo Museoa, XII.
mendearen amaiera)

C - San Migelen erliebea,
Villatuertakoa
(Nafarroako Museoa, ca. 970)

XII. mendearen hasieran, Historia Silense (Historia Silestarra) idatzi zuen elizgizona Fernando I.a Leongoa (1037-1065) erregearen memoria omentzean tematu zen. Ahalegin horretan haren leinua ere barne hartu zuen, eta ahaide guztien artean aita,

Antso III.a Iruñekoa (1000-1035), nabarmentzen zen. Autoreak haren obrak eta balentriak lehenagoko monarkenekin nahastu eta ezbairik gabe egokitu zion Errioxako lurak emirerri andalustarrari konkistatzeko meritua, errealtatean konkistaren burua Antso I.a (905-925) izan bazen ere.

Egilearen ustetan, ekintza horren xede bakarra ibilbide berri zuzenago bat ezartzea zen, Santiagorako erromesek Arabatik "desbideratu" beharrik izan ez

Historia Silestarra

Sancho [III]...desde los Pirineos al castro de Nájera, sacando de la potestad de los paganos toda la tierra, hizo correr sin retroceso el Camino de Santiago que los peregrinos torcían desviándose por Álava, por miedo a los bárbaros

(trad. M. Gómez Moreno, Madrid, 1921, p. 113)

zezaten. Gaur egun historialariek nabarmentzen dituzten osagaiak, hala nola lurralde-hedapena, ideia erlijiosoak, erresuma bateratzeko ahalegina, ez dira aipatu ere egiten. Agian, desbideratze "ofizial" hori, besterik gabe, ez zen existitu, eta Gaztelarekin lotzen zuen hegoalderako bideak protagonismoa irabazi zuen beste batzuen aurrean, logika sozio-ekonomiko eta politikoaren ondorioz.

Badirudi erreala goak direla, eztabaidagarriak badira ere, Santo Domingo de la Calzadako ingeniariak 1100. urtearen inguruan egindako ahaleginak gaur egun haren izena daraman hiria dagoen eremua garatze aldera: harrizko zubi bat, hiriaren lehen trazadura, garapen sozioekonomikoa sendotzeko behar ziren bideak... Baina haien biografietan, guztiak ondorengo mendeetakoak, erromesenganako interesa nabarmentzen da, santu baten berezko erlijio-kezkekin hobeto lotu daitekeena, beste edozein motibazio prosaikoagoren aurrean, esaterako, Errioxa Burgosko lurrekin lotzen zuten eskualdeak indartzea 1076ko Alfontso VI.aren konkista eta gero.

Jendeztatu,
fabrikatu,
salerosi..



San Martin plaza, Lizarra

Erromesaldiaren
negozioaren
atzetik doazen
emigranteak
edo emigranteek
muntatutako feria, merkatu
eta saltokiak **bidaiatzeko**
aprobetxatzen
dituzten
erromesak ?

Hiribilduak eta hiriak
erromesen joan-etorriaren
ondorioz **suspertzen**
dira edo
erromesaldia
hiribildu eta hirien
bilbeari esker?
garatzen da ●

1000. urtearen ondoren, egun Frantzia denaren iparraldean "burges" hitza agertu zen, batez ere artisautzan eta merkataritzan lan egiten zuten eta katedral, monasterio edo gazteluen (burguen) gerizpean zeuden auzoetan bizitzen hasten zirenei erreferentzia egiteko. Hori posible zen, bitxia bada ere, ordurako jabetza feudalaren sistemak merkaturatu eta eralda zitezkeen ekoizpen-soberakinak sortzen zituelako, eta pertsona ugari nekazaritza-lanatik utzi eta jarduera berri horietan aritzeko aukera ematen zuelako.

Historiografiak seinalatu duenez, XI. mendearen amaieratik, burges horietako askok Pirinioetako portuak gurutzatu zituzten beren negozioak "Bidean" ezartzeko, izan ere, erromesek janaria, arropa edo bestelako tresnak erosteko saltokiak behar zituzten eta haien inguruan kokatu ziren. Hortik aurrera, hiriaren eta merkataritzaren hazkundearen eragileak abiadura bizia hartu zuen. Hala ere, gaur egun badakigu "burgu" horietako batzuk erromesaldia hezuramaitzen hasi baino lehen sortu zirela, oraindik oso zaila zen bidaia hori egiteko prest zeuden pertsonaiei buruz ezer gutxi genekienean. Beraz, geure buruari galde diezaiokegu ea hiri-hedapen horren arrazoiak ez ote ziren Europako gainerako lurraldeetako berberak izango, eta ez al zuen garapen horrek lagundu hurrengo mendeetan erromesak ugaltzen...

libro. de calumpnia. **De homicidio.** **O**mnisq; homicidium ppterit ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium
fecit annu. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p
annu. un. diel un. calumpnia. ppterit ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium fecit. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p
illoz duos. sunt n e. n. ppterit ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium fecit. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p
l. fiduciaria. ille q; pignorat e. talit n uoluerit accipere. De pignore. Nulli n debet pignora. S; h. post
parat fiducia. ille q; pignorat e. talit n uoluerit accipere. De pignore. Nulli n debet pignora. S; h. post
i angere tales dare. ppterit ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium fecit. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p

II

aut fiduciaria. aut ppterit ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium fecit. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p
tantu qntu areald iudicabit. Et h. euenit ut n inueniat illi pignu n laxabit illu partire de se usq; q; fa
illi directu secundu iudiciu arealdi. n. h. i. hoc calumpnia. S; h. talit no erat qno clamant quereret meru
de q; clamant erat aut fugeit aut abicodet se. i. clamant ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium fecit. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p
fecit collu uille ppter uilticia de pane. aut de ppterit. aut de capne. aut de q; clamant quereret meru
niferunt ut accipiat calumpnia qnt niferunt. i. ut faciat in uilticia ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium fecit. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p
calumpnia qd niferunt. facient secundu uoluntate collu. i. ut faciat in uilticia ppter sua querunonia manifestant. q; homicidium fecit. q; si unum debet fuge. quia i fca annu. idie unu. parenti martui nign capient directu n qm noluit. S; p
qno uoluerunt qz he e foru. **De hore uba.** S; h. talit no erat qno clamant quereret meru
uba i q; possit esse calumpnie dixit. n. testet in aent. i. testimoniu faciat medietat calumpnie illi e q; testet. de
medietat ppositi uille. S; h. testet n dedit. i. ad uia puenit. i. iura redempta ut. ubi clamant n pariet. quia
ma pposito uille. S; h. qm clamatoria facta est. clamator sine meru codonare n potat. nec meru up
paliq; redemptione sine clamatore. i. q; iura fecit debet se submittit ingrede illi cu calumpnia fecit. **De laqde.**
pide p q; iacetat i pcutit homine. d. sol. i. iacetat. i. uq; ad homine n pueniat. ce. l. sol. i. h. ult. parat
euciat. d. sol. pariet. **De mauro.** S; i. capr mauro alicui homi aut bestia homine puenit. h. negat cu
testib; rami debet pbare. i. h. pbare n pot. tenor mauro aut bestie qd h. mali n fecit. debz iurare. i. h. u
mauro aut bestia reddat. **De dno.** S; i. tenor uille dicit tu hoc malu fecisti. nulla punitio debet
i qd illi pla uixit aut bonu aut malu dicit potat. si clamant ubi n adit. i. ille clamant de manu dno
clam pmetupho debet clamare. i. dno secundu foru amboz debet iudicare. **De pefisa.** **N**ulla
dat illu homine pnulla placito. testet aut iura. aut bellu h. franc e ppter debita de centu de. x. sol.
i. talit iudex debet aliud xano i uident aut negare cu testimoniu debet pbare. si franc e cu uno
de foru e. cu uno hore de foru. i. in uno uideo. i. e. uideo ad ran hndit. i. h. aduenit ut ran habet
quia capta facta de ran ualut antu testet cor uideo. i. o. e. uideo ut monstrat ad illu a capta

Lizarrako Forua. 1164ko berrestea

(AME, Fondos especiales, nº 1)

Frankoak eta burgesak

Erromesek eta merkatariek elkarri laguntzeak sor ditzakeen galderez harago, eta alde batera utzita nork nor bultzatu zuen gehien, egia da Europako mendebalde osotik Compostelara joaten ziren erromesek garatutako abenturak arrakasta izan zuela, zalantzarik gabe, XI. mendetik aurrera kontinente osoan zabaldu zen hirigune-sare garrantzitsuari esker. Eta zentro horiek euren jatorrian elizgizon intelektualek mespretxatu zuten talde berri baten presentziari zor zaizkiola, ezarritako ordena feudala hausten baitzuen ("Legeak ahuldu egiten dira eta bake sozial oro desagertu egiten da", esango du Laongo Adalberon apezpikuak 998an). Baina merkataritza eta artisautza

garatzeko prozesua abian jarri ondoren bultzada geldiezina izan zuen. Agintariek, eklesiastikoek barne, aurrerapen ekonomikoa zekartela eta onuragarri zitzaieela onartu zuten. Hiri episkopal, monasterio, gaztelu, zubi edo bidegurutze zaharrekin batera sortu edo zaharberritu zituzten auzoetan (burguetan) babestu zituzten, eta pribilegioak (foruak) eman zizkieten, baita antolatze askatasun espezifikoak ere (frankiziak). Franko esaten zitzaien, nekazariak ez bezala, askeak zirelako (*frank* germanieraz) eta lehenak frankoen erresumatik iritsi zirelako. Nafarroako lurrak eta penintsulako iparraldeko gainerako bideak jendeztatu zituzten, Santiagora iristen ziren bide handiak barne, XI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, eta artisautza-, merkataritza- eta nekazaritza-jarduerak maiz nahasten zituen hiri eta hiribilduen hedapena geldiezina izango zen hurrengo hiru mendeetan. Merkatu eta dendarik gabe, baina baita benta, taberna eta ostatu, parrokia eta komenturik gabe erromesek, Compostelara edo beste edozein santutegitara bidean, askoz egoera zailagoak jasango lituzkete.





Jendeztatu, fabrikatu, salerosi...

Aduanako zokoa Iruñean. (1901)

[AGN IRAIZOZ ASTIZ 0165]

Zergarik gabeko erromesak

Zubiak, harresiak, komunak, bideak edo merkatuak mantentzeko askotari-ko zergak ordaintzen ziren. Normalean, salgaiak leku batetik bestera eramaten zituzten merkatarik edo artisauek kopuru jakin bat ordaindu behar izaten zuten zubiak zeharkatzeagatik, hirietan sartzeagatik, merkatuetan saltzeagatik, eta ia beti produktuen kantitate eta kalitatearen arabera izaten zen. Hala ere, agintariek interes ekonomiko edo ideologikoen arabera komeni zitzaizkien salbuespenak ezar zitzaizketen. Salbuespen aipagarrien artean erromesak zeuden ia beti, bidaiatzeko behar zituzten

baliabideak garraiatzeko aukera ematen baitzitzairen, baina, zenbaitetan, salgai gutxi batzuk ere bai, haiek salduz gastuak ordaindu ahal izan zitzaizketen. Maiz, arauak hain lausoak ziren ezen erromesen eta zerga-biltzaileen arteko gatazkak ohikoak bihurtzen baitziren. Zerga-biltzaile horietako asko, batez ere Behe Erdi Aroan, errentatzaileak ziren, eta hiriei edo errege-erreginei dirua aurreratu eta tasen zenbatekoarekin geratzen ziren. Negozioa, beraz, al bait diru gehien biltzea zen, erromesak babesten zituen karitatearen printzipioaren kontura behar izatekotan. Eta, alderantziz, merkatarik ibiltari askoren xedea penitentziagile errukiorretan transmutatu eta tasak ordaintzea saihestea zen.



Burguak eta burgeteak

A. Larrasoña (Nafarroa)

B. Auritz (Nafarroa)

A

B

Orreagatik hegoalderantz atera bezain azkar, bidaiariak, erromes izan ala ez, Auritz (gaztelaniaz Burguete) hiribildua topatuko du. Gaztelaniaz duen izena oso adierazgarria da. Frankizia-forudun hiribilduari erreferentzia egiten dio, eta, beraz, bertan burgesak bizi direla adierazten du, baina hirigunearen tamaina txikiari eta biztanleria urriari txikiari erreferentzia egiten die. Bitxia bada ere, Auritz jatorrizko Orreaga zen, agian XI. mendeko hirugarren laurdenean sortua, eta Orreagako Burgu izen ofiziala, ohikoa 1170eko hamarkadan forua jaso zuenetik, Andre Mariaren Kolegiatatik bereizteko erabili zen, XII. mendeko hogeita hamarreko hamarkadan eratu zena. Erdi Aroaren amaieran agertzen da Orreagako Burgete terminoa. Baina bidean –bideetan– askoz ere “burgete” gehiago daude. Lehenagoko jatorria duten herri txikiak dira (baseliza bat, herrixka txiki bat...), eta monarkek nolabaiteko erliebea eman nahi izan zieten euren eskualdeen garapena bultzatzeko, baina ozta-ozta gaingitu zuten inguruko nekazarien herri askoren tamaina eta ez zuten inoiz “ahaide nagusien” adina pisu izango. Larrasoña, Elo, Urrotz, Lantz, Esprontzeda, Nafarroako adibide batzuk aipatzearren, dira bideari berriz ekin aurretik etenaldi luze edo motz bat egiteko beharrezkoak ziren zerbitzu minimoak eskaintzen zituzten beste “burgete” batzuk.










44 1254, abuztuak 7

Jaime I.a Aragoikoa erregeak bere erreinueta askatasunez
salerosteko lizentzia ematen die Lizarrako merkatariei.

AME, Fondos Especiales, 4



Erromesentzako arteak?



Eunateko Santa Maria, XII. mendea [Muruzabal]

Artea errimesei **esker** loratzen da edo **errimesaldiko** **santutegiek**

errimesen zerbitzura
jartzen dituzte
teknika berriak



Errimesaldiko **errimaniko** edo **gotiko** bat dago edo errimanikoa eta gotikoa daude **errimesaldian** ?

Gaur egun, artearen historialariek jada ez dute “errimesaldiko errimanikoa” bezalako terminorik erabiltzen, dibulgaziorako ez bada. Erdi Aroko artearen estilo eta korrante desberdinei buruzko azterlan espezializatuak beste eredu eta ikuspegi batzuetan kokatzen dira. Hala ere, horrek ez du eragozten nolabaiteko konstante bati eustea, kontakizun herrikoienaren arloan behintzat, zeinaren arabera XI. mendetik Europako mendebaldea hartu zuten estiloak, arte errimanikoa kasu, edo XIII. mendetik aurrerakoak, gotikoa adibidez, Donejakuerako errimesaldiaren bidez iritsi ziren penintsulako iparraldera. Arkitekturako eta eskulturako maisu-taldeak, edo elizetako fresko ugarien –gehienak desagertutakoak– margolariek, bakarka edo, ia beti, egile-taldeetan (“tailerrak”), urte eta hamarkadetako ibilbide luzeak egingo zituzten, lanbideari eskainitako bizitza oso bat, errimesen baitan, Jakako, Orreagako, Iruñeko, Lizarrako, Burgosko, Leóngo edo, jakina, Santiago de Compostelako maisulanak amaitzeko. Dena den, ez da ahaztu behar mende horietan Europa osoa pil-pilean zegoela, eta gaur egun oraindik miresten ditugun milaka eraikin erlijioso eta zibil eraiki zirela. Loraldi artistikoa errimesen joan-etorriarekin lotzea, eskualde horietako hedapen demografiko eta soziala kontinenteko beste edozein eskualderen antzekoa denean, gehiegizkoa izan liteke.



A



B

Esteban maisuaren lantegiko lanak, (A) Jakako, (B) Iruñeko (NM) eta (C) Santiago de Compostelako katedraletakoak


**Esteban, maisua,
bizitza oso bat
“erromesaldian”**



C

Donejakuerako erromesaldiarekin lotura duten artisten tradizioa hobekien sinbolizatzen duen pertsonaietako bat Esteban maisua da. Haren eskulturak "Bide" osoan barna topa daitezke, Santiagoko katedraletik Tolosako Done Saturdiraino, Iruñea eta Jakarekin batera. XI. eta XII. mendeen artean, gainera, hainbat tailer sortu zituen, eta tailerrek, aldi berean, foku nagusi horien inguruan artea sortu zuten eliza- eta monasterio-sare zabal batean. Beraz, "Bidearen" garapenak penintsulako iparraldera artea eta artistak zenbateraino erakarri zituen erakusten duen adibiderik argiena litzateke. Jakina, Compostelaren hazkundeak apostoluaren hilobira egindako bisitekin lotura du, eta egoitzak jasotzen zuen dohaintza-fluxuak, zalantzarik gabe, lan horiek finantzatzen lagundu zuen. Baina erromesen kopurua –helmugatik zenbat eta urrunago egon, orduan eta urriagoa eta sakabanatuagoa– nahikoa izatea artistak hiri-hedapenak beste hainbat motibo zituen lekuetara berreziki erakarriak sentitzeko eztabaidagarriagoa da. Jakak, Aragoiko eremuaren buruak, 1076an gune burges sortu

berriari emandako foru bat zuen; Iruñeak, erresumako hiri-buru eta gotzain-egoitzak, ere 1129an izango zuen, baina XI. mendearen amaieratik frankoen presentziaren berri dugu; Tolosa, Okzitaniako konde-egoitza handia, erreferente erlijiosoa zen –San Saturdiren hilobia–, eta lehen mailako erreferente politikoa lehenagotik. Guztiek, berez, pisu berezia zuten, Aimeric Picaudek erromesaldietan funtsezko gisa definituko zituen adarretako batean zuten kokapena alde batera utzita, baina, batez ere, penintsulako iparralde osoa komunikatzen zuena. Ukronian gehiegi jolastu gabe, geure buruari galdetu beharko genioke horrelako zerbait –Compostela bera izan ezik– erromesaldirik gabe oso bestelakoa izango zatekeen. Xehetasun bat besterik ez: garai hartako kronikarien hitzetan, Santiagorenganako jaieradun gehienak kristau hispaniarrak ziren. Iruñetik edo Jakatik igaroko liratekeen Pirinioez bestaldeko herritarrak gutxiengo txikiaren alde geratuko lirateke, beraz...



Iparraldeko sagetatik gesta-kantetara. Artea kondairan

A - Regin errementaria?
Zangozako Santa Mariako
portada

B - Sigurd eta Regin.
Osloko Kultura Museoa

Argazkia: Jeblad

C - Errolan eta Ferraguten arteko
borroka Lizarrako Gustavo de Maeztu
Museoa Errege Jauregian (AGN MIR_IMG0248)
eta 1380ko eskuizkribu bat
(Français 2813, fol. 118)

Zangozako Santa Mariako portadako goiko eskuinaldeko arkuartean, errementari bat tek zortziehun urte baino gehiago daramatza lanean etengabe sutegian. Handik gutxira, bi zaldunek betiko borrokari ekin zioten Lizarrako jauregiko kapitaletan, egun Gustavo de Maeztu Museoa egoitza denean.


Askotan, zaila da zama sinboliko handiko baina idatzizko kontakizunik gabeko eszenak interpretatzea, eta, Zangozako eszenaren kasuan, espezialistak ez dira ados jartzen. Azken hamarkadetan eztabaidatu-tako bertsio tradizionalak errementaria eta portada bereko beste irudi batzuk Nibelungoaren Eratzunaren kondairarekin erlazionatzen ditu: Regin errementaria Sigurd/Sigfridoren ezpatari aurre egiten, Fafner dragoiarekin borrokan ari den protagonista... Beste kasuak agerikoagoa dirudi. Errolan eta Ferragut erraldoiaren arteko borrokaren eszenifikazioa da, heroi karolinjioari eskainitako kantan jaso. Erliebeen interpretazioari buruzko eztabaidak alde batera utzita, bata zein bestea, Artur erregea protagonista duen "Britaniako materia" izenekoarekin batera, beharbada garai horretan Europan hedatuena dauden hiru ziklo epikoak dira. Errolanena, zalantzarik gabe, hispaniar penintsulan ezagunena izan zen, baina ordurako bazen haren berri XI. mendearen bigarren erdiko mundu anglonormatuan. Kontakizun horiek iparralde hispanokristauan Europako iparraldetik zetozen erro-

mes xakobeoak (germaniarak, normandiarak, britoiak) igarotzearen ondorio izan zirela esan zitekeen, baita hala egin ere, eta hura izan zitekeen Zangozako eta Lizarrako irudien egileen jatorria.

Baina ez litzateke arbuiatu behar, Mendebalde osoan bezala, kontakizun horien eta beste batzuen hedatzaile handiak ikusleen miresmen eta eskuzabaltasunaren bila kale, herri, gorte eta gazteluetan barrena ibiltzen ziren juglareak eta ministrilak izatea. Musikatu eta abestean, printzipioz, erromesena baino lanbide handiagoa duten juglareak...



Erromesari ostatu ematea



Ospitale Berria, Orreaga (ca. 1800)

Zergatik eraikitzen dira
**ospitalerik
handienak
erromes gutxiago**
daudenean?

Nor da
ostatu
eman behar
zaion
erromesa?

Venid, benditos de mi padre, tomad posesión del reino preparado para vosotros. [...]. Porque tuve hambre y me disteis de comer [...], porque fui forastero (hospes) y me acogisteis.

(Mt., 25,35)

“Erromesak etxean hartu”, dio Mateoren Ebanjelioaren kontakizunetik abiatuta definitutako errukizko egintzetako batek. Bibliak beste norbaiten babesa behar duen edonori egiten dio erreferentzia, eta, hain zuzen ere, *hospes* itzultzeko “arrotz” edo are “emigrante” terminoak erabili izan dira.

Erlijio handi guztietan arreta berezia eskaintzen zaio abegikortasunari, baina interesgarria da ikustea nola katolizismoaren kasuan “erromesari” erreparatu zaion bereziki, eta nola *peregrinus* hori, latin klasikoan bidaiari atzerritarra esan nahi duena, santutegi batera eta, bereziki, horietako batera, Compostelara kasu, joaten dena bihurtu zen. Dena den, ospitaleek, *hospites*-ak (*hospes* hitzaren pl.) hartzeko ardura zutenek, nahiz eta errome-saldi-ibilbide nagusietan kokatu, behartsuak, “arroteak”, merkatari txikiak eta bidaiariak ere hartzen zituzten, eta neurri handiangoan gainera. Bezero ugari, erakunde eklesiastikoek ez ezik, zibilek ere euren kezka sozialak publikoki adieraz zitzen.



Errege-Erregina Katolikoek Ospitalea
(Santiago de Compostela)

Abegikortasuna eta propaganda politikoa

IV. mendearen inguruan Eliza instituzionalizatzen hasi zenetik XIX. mendeko desamortizaziora arte, eliza-erakunde gehienek izan zituzten behar-tsuak, bidaiariak eta erromesak artatzeko guneak eta baliabideak. Monasterio, komentu, kolegio eta katedraleetako komunitateetako ostatu-emaileak, erretore eta kapilauak, ermitauak edo ahizpek beren apopiloak artatzen zituzten, arau eta xedapenen arabera. Hala, ordenak sortu ziren, adibidez, Jerusalemgo San Joan Ospitalekoa (XII. mendea), hasiera batean Lur Santura zihoazen erromesei arreta emateko xedarekin, baina laster Mendebalde osoan hedatu ziren mota guztietako behardunak artatze aldera. Haatik, botere publiko laikoaren garapenarekin, eta

XIII. mendetik aurrera bereziki, monarka eta hiriek –baina ez haiek bakarrik– propaganda politikorako elementu berezi bat aurkitu zuten kristauen karitatearen erdigunean zegoen pertsona-kopuru garrantzitsu hori laguntzean. Agintariek, hospizio eta ospitaleen kontrol gero eta handiagoaren bidez, ebanjelioaren manuei erantzuteko interesa baino gehiago, zuzentzen zituzten erakundeek guztien ongizaterako zuen garrantzia erakusten zuten, eta, aldi berean, behardun horiek, era horretan limosnarekin eta babeslekuarekin kontrolatuta, ez zutela bake soziala asalatu behar artatuak izan bitartean. Jakin badakigu XI. mendetik aurrera, eta are lehenagotik, hainbat monarkak instalazioak aldeztu zituztela, baina XV. edo XVI. mendeko errege-erreginak eraiki edo zaharberritu zituzten ospitale handiak, hala nola Errege-Erregina Katolikoek 1486tik aurrera abian jarritako Santiago ospitalea, propaganda politikoa garrantzitsua ziren gehienbat, non tamaina eta kanpo-handitasuna –haien boterearen edo lortu nahi zuten boterearen sinboloak– euren egiazko misioa bezain garrantzitsuak edo are garrantzitsuagoak ziren.



Bideko behartsuak

A. Erromes baten eta musikari ibiltari baten arteko borroka.
(BNF, Estampes, Reservé DA 30-B2, ca. 1600)

B. Erasmoren *Eromenaren Laudorioa* laneko Erromesa edizio frantses batean (Paris, 1877), H. Holbeinen marrazki originalen arabera.



Karitatearen ("gose bainintzen eta jaten eman zenidaten") eta abegikortasunaren batasuna ("arrotz, eta etxean hartu ninduzuen") bereziki presente zegoen europar Mendebaldeko hiri eta bideetan bizi ziren -eta diren- eskaleen kasuan. Kasu horietan ere laguntza-zentroei zegokien behardunak artatzea, gutxienez limosnaren eta janariaren bidez, eta hor ere botere publiko eta erlijiosoek (nahiz eta estatu nazionalen aurreko munduan bereizketak egitea zaila izan) abagune paregabea zuten beren existentziaren premia erakusteko. Baina, horrez gain, erromesaldi-fluxuek erromesaldiko profesionalak agertzea ahalbidetzen zuten, Erreformaren aitzindariak argi eta garbi kritikatu zituztenak, Erasmok *Eromenaren Laudorioa* (1511) lanean adibidez. Penitentziagile gisa eta zituzten pribilegio eta salbuespenen babesarekin, santutegitik santutegira bidaiatzen zuten, gizabanako eta erakundeek ematen zituzten limosna eta aterpeetatik biziz. Agintariak nekez mugatzen zuten gizabanako horien presentzia, erraz nahasten baitziren benetako erromes eta eskaleekin. Batzuen eta besteen arteko borrokak edo ibiltaritza lan-sistema bihurtzen zutenekin zituztenak (musikariak, juglareak, saltzaile ibiltariak...) eguneroko kontuak ziren.



